



Samartintxok-eta*burdina lantzen basajaunengandik ikasi ondoren guztitariko burdin tresnak egiten ebezan. Halan da ere, zura lantzeko ez euken besterik haizkorea baino. Basajaunak, oster, ez haizkorak bakarrik zerrak ere ba eukezan olak egiteko. Samartintxok ba ekian zerrak eukezela eta zertarako ziran ere baina ez ekian zelangoak ziran. Eta burua haustu*beharrean ebulan zerrea asmatzen... baina eginahalak egin arren, ezin lortu.

—Basajaunakana norbait bialduko ^{baneu}banajok... —inoan berak. Baina nor bialdu? Basajaunak amorru handia eutsen berari eta baserritarrei; umeei, oster, ez horrenbeste...

—Bai, umeak bialduko ^{dodaz}joãdaz! —esan eban. Eta udabarria zanez

—Hi, mutiko! —esan eutsan txori habiak ikasten*ebilan bati—
Neuk esango ^{deutsut}deuãt txori habi ugari non dagoan.
Baina basajaunen basoa dan ezkerro ^{deustazu}errekadu bat egin behar deustak.

—Zein?

—Basajaunen zerrea zelangoa dan jakiteko Samartintxok zerrea asmatu dabela esan eurai. Joan zan, bada, mutikoa lagunakaz txorienak*ikasten basora ta lehenen ikusi eban basajaunari ba dinotso.

—Ba ^{dakizu}dakik?

—Jakin, zer? —dinotso basajaunak.

—Samartintxok zerrea asmatu dauala.

—Zerrea asmatu? Ez, ^{badgu}gaztain orria ikusi ez bajok!

zirrin

zarran

—Ez, ez dau ikusi baina ikusiko ^{dau}jok —esanda arineketeari emon eutsan eta Samartintxo-gana heldurik entzundakoa esan eutsan.

Handik laster, eginda eukan Samartintxok gaztain orri aginen antzeko zerra barria.

—ZIRPIN-ZARRAN, ZIRPIN... —polito ebaten eban.

—Bihar pago garriak*ebagiten joango ^{gara}gõzak basora —esan eban.

Eta eguna iluntzen joianez

alde egin eban etxera zerrea bertan behera itzirik.

Gauaz basajaunak

Samartintxo-ren olara*abiatu*ziran zerrea asmatu eban ikustera.

Eta zerrea ikusirik

—Ez, bada! —esan eban eurretari batek—

Neuk okertuko ^{deutsadaz}jeutsadaz aginak, ebagi ez dagian.

Eta banan banan agin guztiak okertu eutsazan.

Biharamon goizean ba doaz Samartintxo ta lagunak olara, zerraren bila, basora gero joateko, ta

—Ene! Zerrea hondatuta! Barrabana!

—Hauxe ezbeharra! —inoen lagunak ere.

—Belea ^{goazan}baltzago ez dõk egingo bai!... —esan eban Samartintxok—
eta ^{goazan}gõzak zerrea dagoan dagoanean probatzen!

Ba doaz pagadi batera,

oratu deutsoe biren arte zerreari, ebagiten hasi...


eta ondo baino hobeto ez dau ebagiten ba?

Ha zan poza!

Basajaunen bengantzeak*mesedea egin, Samartintxo-ri.

Oraingoan bai, Samartintxo-eta

basajaunak baino aurreratuago bizi!



* -eta = ...y otros, etc.
* haustu = apurtu

* asmatu = inventar, idear
* eginahalak = cuanto se puede hacer, esfuerzos

* habiak ikasi = buscar nidos
* txorienak = txorien habiak

* pago-garria = tronco de haya
* ola = taller, ferrería

* abiatu = encaminarse a, dirigirse a
* ezbeharra = disgusto, contrariedad

* bengantzea = ordaina